

Kanalak enpresa batek bere produktua sortzen duenetik kontsumitzailearengana iristen den arte zeharkatzen duen bideak dira. Banaketa-kanal batean elementu jakin batzuk daude tartean, eta ezagutu egin behar dira. Hauek dira ekoizlea, aldizkaria, txikizkaria eta azken kontsumitzailea.

Burutuko ditugun formakuntzetan zenbait kanal erabiliko ditugu, honela, bezeroei gure balio-proposamenak helaraziz.

Kanal nagusiak, interneta, sare sozialak (instagram, twitter, facebook, whatsApp) eta kartelak ditugu. Honez gain, ahoz ahoko komunikazioari ere garrantzia handia emango diogu.


Instagram, facebook eta twitter sare sozialei dagokienez, hauetan gure formakuntzen kartealak, saioetako argazkiak, aholku, gomendio zein informazioak partekatuko dugu.

Interneten, webgune bat sortuko dugu. Bertan, nor garen, zer egiten dugun, nola, zertarako, non kokatzen garen eta beste zenbait informazio iragarriko dugu. Besteak beste, esaterako, eginiko formakuntzen inguruko informazio eta irudiak ere txertatuz.

Ondorio moduan, kanalean dauden elementuak ezagutzea ezinbestekoa eta garrantzitsua da, guk ahoz aho informazio hori ere adierazteko. Gainera, hainbat kanal erabiliko ditugu formakuntzetan balio proposamenak adierazteko.

Horrez gain, kamisetak sortuko ditugu elkartearen iragartzeko. Dirua ateratzeaz gain, hitzaldietan hizlari bakoitzak kamiseta bana jantzita eramango du ikustarazteko, eta gainera, hitzaldiak amaitu ostean kamiseta erosteko aukera izango dute. Horrela izanik, sare sozialen bidez ere salgai egongo dira kamisetak. Gainera, bestelako materiala ere salgai eta eskuragarri egongo da. Adibidez, ur botilak, umeentzako liburuxkak, biserak, etab. Guzti hau, urtean zehar salgai egongo da gure elkarteko lokalean, eta Durangoko azokan zein beste azoka alternatiboetan ere presente egongo gara.

facebook

 **WhatsApp**

